

Memoria gorde,
oraina bizi,
etorkizuna eraiki,
izan Kronikalari!



■ HERNANI ARRAUNA

Gorrion hil da, patroia ohia

Hil berri da Joxe Urdanbide Etxeberria altzatarra, denek ezaguna duten "Gorrion" ezizeneko patroia. Emaiza ezin hobekoa lortu zituen bere garaian. Klubak esker hitzak eskaini nahi ditu Gorrionentzat eta familiari besarkada estu bat bidali. ■

■ HERNANI BITERI KULTUR ETXEA

Beste ikasturte bat, kulturaz blai

Datorren astelehenean irekiko da izena emateko epea, ostiralera arte. Zozketa irailaren 9an da.

IRAILERAKO egun gutxi geratzen dira, eta horrekin batera, ikasturte berria antolatzeari ekin diote askok. Horretan laguntzeko, etxez etxe banatu du Hernaniko Udaleko kultura sailak Biteriko ikastaroen eskuorria.

Ohi bezala, haur, gazte eta helduei eskainitako makina bat ikastaro izango dira 2019-2020 ikasturtean ere, urriari hasi eta maiatza-ekaina bitartean. Pare bat ikastaro labur ere izango dira.

Izenematea, datorren astean
Hain justu, horietakoren bat

egin nahi duenak, datorren astean eman beharko du izena. Astelehenean hasi eta ostiralera arteko epea izango dute herritarrek, horretarako (irailaren 2tik 6ra bitarte).

Biteri kultur etxeko harreman egin beharko da hori, goizeko 09:00etatik 13:00etara, eta arratsaldeko 16:00etatik 20:00etara.

Ikastaroetan dauden plazak baino izenemate gehiago badaude, zozketa egingo dute irailaren 9an, 12:00etan. Behin betiko matrikula, aldiz, irailaren 10etik 16ra bitarte egin beharko da. ■



Aurtengo ikastaroen artean dago dantza garaikidearena.

■ HERNANI ARRAUNA

Kontxako sailkatze estropada, bihar

Bihar hasiko da Kontxako Banderaren sailkatze estropada, arratsaldeko 17:30etan. 'Maialen' trainerua B taldean arituko da. ■

■ HERNANI IGERILEKUA

Ur jolasen azken eguna, gaur

Gaur izango da igerilekuko jolasetan aritzeko azken eguna. Goizeko 11:00etatik 13:00etara lehorrekoak egin ahal izango dira: slack line, ohe elastikoak, ping-pong... Eta 13:00etatik 14:30ak ingurura arte, koltxonetak aterako dira uretara... ■

■ HERNANI ATZIETA KALEA

Atzieta kalea itxita egongo da, gaur

Gaur goizeko 9:00etatik aurrera, Atzieta kalea itxita eongo da, saneamendu lanak direla eta. Lanak dauden bitartean, ibilgailuek ezingo dute sartu Atzieta kalera. Bertan aparkatuta dauden ibilgailuak aldiz, atera daitezke. ■

■ GOIZUETA UDALA

Goizuetako Udala itxita, gaur

Gaur, Goizuetako Udala bulegoak atekatu izanen ditu. Barkamena eskatu du Udalak. ■



HELDUENTZAKO IKASTAROK

Urriaren 1etik ekainaren 18ra

- **Egur taila:** astelehenean, 09:30-12:00, eta asteartean, euskeraz, 18:00-20:30. Prezioa: bertakoek 170,64 euro; kanpokoek 224,75 euro.
- **Pintura (hastapena):** euskeraz, astearte eta ostegunetan, 19:00-21:00. Prezioa: bertakoek 272,61 euro; kanpokoek, 355,85 euro.
- **Pintura (sakontzea):** astelehenean eta asteazkenetan, 19:00-21:00. Prezioa: bertakoek 272,61€; kanpokoek, 355,85€.
- **Pintura:** astearte eta ostegunetan, 10:00-12:00. Prezioa: bertakoek 272,61 euro; kanpokoek, 355,85 euro.
- **Zeramika:** euskeraz, astelehenean eta asteazkenetan, 19:00-21:00. Prezioa: bertakoek 272,61€; kanpokoek, 355,85€.
- **Eskulanak:** astearte eta ostegunetan, 10:00-12:00. Prezioa: bertakoek 272,61 euro; kanpokoek, 355,85€.
- **Patchwork:** euskeraz, ostegunetan, 17:00-19:00. Prezioa: bertakoek 134,22 euro; kanpokoek, 178,97 euro.
- **Arropa konponketa (hastapena):** euskeraz, asteartean, 19:00-21:00. Prezioa: bertakoek 134,22 euro; kanpokoek, 178,97 euro.
- **Arropa konponketa (aurreratua):** euskeraz, asteartean, 17:00-19:00. Prezioa: bertakoek 134,22 euro; kanpokoek, 178,97 euro.

koek, 178,97 euro.

- **Altzarien itxura berritzea:** euskeraz, asteartean, 19:00-21:00. Prezioa: bertakoek 134,22€; kanpokoek 178,97€.
- **Dantza garaikidea:** euskeraz, astearte eta ostegunetan, 09:30-11:00. Prezioa: bertakoek 204,98 euro; kanpokoek, 270,53 euro.
- **Dantza garaikidea (hastapena):** astelehenean eta asteazkenetan, 18:00-19:30. Prezioa: bertakoek 204,98 euro; kanpokoek, 270,53 euro.
- **Dantza garaikidea (sakontzea):** euskeraz, astelehenean eta asteazkenetan, 19:30-21:00. Prezioa: bertakoek 204,98 euro; kanpokoek, 270,53 euro.
- **Dantza latinoak (hastapena):** ostegunetan, 19:00-21:00. Prezioa: bertakoek 134,22€; kanpokoek, 178,97€.
- **Dantza latinoak (sakontzea):** euskeraz, asteartean, 19:00-21:00. Prezioa: bertakoek 134,22€; kanpokoek, 178,97€.
- **Tai chi Kung (hastapena):** astearte eta ostegunetan, 09:00-10:30. Prezioa: bertakoek 204,98€; kanpokoek, 270,53€.
- **Tai chi Kung (sakontzea):** euskeraz, astearte eta ostegunetan, 17:30-19:00. Prezioa: bertakoek 204,98 euro; kanpokoek, 270,53 euro.
- **Yoga:** euskeraz, astearte eta ostegunetan, 19:00-20:30 edo astelehenean eta asteazkenetan 19:30-21:00. Prezioa: bertakoek 204,98€; kanpokoek,

270,53€.

- **Yoga:** astearte eta ostegunetan, 15:00-16:30 edo astelehenean eta asteazkenetan 09:30-11:00. Prezioa: bertakoek 204,98€; kanpokoek, 270,53€.
- **Antzerkia:** euskeraz, asteartean, 19:00-20:30. Prezioa: bertakoek 99,89 euro; kanpokoek, 130,06 euro.

IKASTARO LABURRAK

- **Argazkigintza digitala (hastapena):** euskeraz, urriaren 2tik abenduaren 18ra, asteazkenetan, 19:00-21:00. Prezioa: bertakoek 80,12€; kanpokoek, 107,17€.
- **Argazkigintza digitala (sakontzea):** euskeraz, martxoaren 4tik ekainaren 17ra, asteazkenetan, 19:00-21:00. Prezioa: bertakoek 80,12€; kanpokoek, 107,17€.

HAURRENTZAKO IKASTAROK

Denak euskeraz

- **Sormena, emozioak eta giza trebetasunak (2-3 urte):** urriaren 7tik maiatzaren 25era, astelehenean, 17:00-18:00. Prezioa: bertakoek 39,54 euro; kanpokoek, 52,03 euro.
- **Sormena, emozioak eta giza trebetasunak (4-5 urte):** urriaren 7tik maiatzaren 25era, astelehenean, 18:15-19:15. Prezioa: bertakoek 39,54 euro; kanpokoek, 52,03 euro.

- **Pintura-marrazketa (6-9 urte):** urriaren 1etik maiatzaren 28ra, astearte eta ostegunetan, 17:30-19:00. Prezioa: bertakoek 132,14 euro; kanpokoek, 170,64 euro.
- **Dantza garaikidea (6-9 urte):** urriaren 1etik maiatzaren 26ra, asteartean, 17:30-18:30. Prezioa: bertakoek 39,54 euro; kanpokoek, 52,03 euro.
- **Yoga familian (6-9 urteko haurrak gurasoekin):** urriaren 2tik maiatzaren 27ra, asteazkenetan, 17:00-18:00. Prezioa: bertakoek 39,54 euro; kanpokoek, 52,03 euro.
- **Antzerkia (9-12 urte):** urriaren 5etik maiatzaren 30era, larunbatetan 10:00-11:30. Prezioa: bertakoek 66,59 euro; kanpokoek, 88,44 euro.
- **Dantza: hip-hop, funky (10-12 urte):** urriaren 4tik maiatzaren 29ra, ostiralean, 17:30-18:30. Prezioa: bertakoek 39,54 euro; kanpokoek, 52,03 euro.

GAZTEENTZAKO IKASTAROK

(13-17 urte) Denak euskeraz

- **Autodefentsa feminista tailerra (Gazteria eta Berdintasun sailak antolatuta):** urriaren 5etik maiatzaren 30era, larunbatetan, 11:00-12:30. Doan.
- **Dantza: hip-hop, funky:** urriaren 4tik maiatzaren 29ra, ostiralean, 18:30-19:30. Prezioa: bertakoek 39,54 euro; kanpokoek, 52,03 euro.

BIKAIN
OKINDEGI TA GOZOTEGIA

Eguneroko ogia beti bikain

Elkano 12 - Tel.: 943 55 31 42
Eziago poligonoa - Tel.: 943 55 00 89 20120 Hernani

MASUSTA EKODENDA

Elkadura Biologikoa
Osagai naturalak
Senda Belarrak
Kosmetika Ekologikoa
Liburuak...

- MEDIKU NATURISTAREN KONTSULTA
- TNDI ETA DEPORTIBO MASAJEAK
- ERDITZERKO PRESTAKETA
- GIMNASIA BITALA
- YOGA KLASAK
- ZEN MEDITAZIOA
- TERAPIETARRAKO ESPAZIOA ALOKAGAI

ANDRE KALEA, 43 - HERNANI
Tel.: 943 555 710

FUNERARIA ORBEGOZO BEILATOKIA

Asegururik ba al duzu?

Deitu Orbegozora

24 orduko tfnoa.
943 33 10 20

www.funerarioorbegozo.com

Zentrala - Latsunbe 7, Hernani

HERNANI ANDOAIN ASTIGARRAGA URNIETA GOIZUETA



GAUR Gaur, eguraldi egonkor eta argiagoa egingo du, iparraldean hodeiak eta ostarreak izango dira tarteka. Haizea aldakor egongo da, eta arratsaldean iparraldekoa nagusituko da. Tenperaturak igotzera egingo du. **Min.19° / Max.25°**



BIHAR Bihar, zerua nahiko estalia egongo da, hala ere, oso euri gubi egingo du. Egitekotan gauean izango da, azken orduetan. Iparraldeko haizea izango da nagusi, eta tenperaturak apur bat jaitsiko dira, eguna amaitzen doan einean. **Min.18° / Max.22°**



TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOIA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622 **AUTOBUSAK:** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **Castilla** Urbietan, 7 (Hernani) **943 552941** **Gauetz:** **Aldabe** Perkaitezgi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**



GOIZUETA SAN AGUSTIN EGUNA

Artikutzak ateak irekita beste behin, San Agustin egunez

Goizeko 11:00etan hasiko dira ekintzak meza nagusiarekin, bertan izanen da Egieder otxotea. 100 urte dira Donostiako Udalak finka erosi zuenetik.

SAN Agustin eguna da gaurkoa, Artikutzaren zaindaria, eta hori ospatzeko, ateak irekiko ditu, bai oinezkoentzat, baita kotxeentzat ere, aurretik baimenik eskatu gabe.

Hori, gainera, egitarau borobil baten bueltan egingen dute aurten ere.

Goizeko 11:00etan hasiko da festa, mezarekin. Bertan izango da, Egieder otxotea, girotze-lanetan. Ondoren, 11:30-etan, bi pilota partidu jokatu dituzte Goizuetako eta Oiarzungo pilotariak, elkarren aurka.

Arratsaldean, 17:30etan hasiko dira herri kirolak eta dantzaldia egingen dute gero, Gabezin taldearekin, 19:30etan.

Egun osoan zehar ez dira faltako eskulanak ikusi eta saltzeko postuak, ezta jan-edanak saltzen dituztenak ere. Artikutzako argazki zaharrak ikusteko aukera ere izanen da.

Donostiako Udalak erosi zuela, 100 urte

Nahiz eta Artikutza Goizuetako lurretan egon, Donostiako



Aurten ere postuak jarriko dituzte Artikutzako finkaren inguruan.

Udalak erosi zuen duela 100 urte, 1919. urtean. Hori dela eta, Enrique Ramos Donostiako ekologia zinegotziaren esanetan, «2019a urte berezia da».

Gainera, urtegia hustu berri dute, eta laster jakinaraziko dute zer egingen duten bertan: «harekin zer egin zehaztuko duen proiektua izapidetzen ari gara. Proiektua laster aterako da lizitaziora, eta hor zehaztuko da presa erabat deuseztatu den ala beste irtenbide ba-

tzuk hautatuko diren», azaldu du.

Jardunaldiak, urrian

Bitartean, bi liburu eskatu ditu Udalak: Aranzadi Zientzia Elkarteari, finkaren balioei buruzkoa; eta dibulgazioko bat, Dani Burguiri. Horrez gain, dokumental bat eta hitzaldi sorta bat ere eskatu dio Aranzadiri, urriaren 3an eta 4an San Telmon egingen diren jardunaldietarako. ||

ASTIGARRAGA ERGOBIAKO JAIK



Astlehenean egin zen ldi demen bigarren txanda, arratsaldeko 18:00etan.

Ergobiako jaiak 'hurrengo urtera arte'

Astlehenean, amaitu ziren Ergobiako jaiak eta amaiera pare gabea emateko, ldi demen ostean, Laiotz taldeak Ergobiako plaza girotu zuen. Jarraian, zezen suzkoa eta su artifizialak egon ziren. Eta gauari amaiera emateko, Laiotz taldeak berriro musika instrumentuak hartu, eta jaiak agurtu zituzten. ||

ASTIGARRAGA KIZKIA TALDEA

Sagardo txapelketa gaurtik, Gure Izarran

Hogei sagardotatik onena hautatuko dute Kizkia Taldeko kideek, lau saiotan.

INGURUKO sagardorik onena hautatzeko urteroko zitari emango dio hasiera gaur Astigarragako Kizkia Taldeak. Hogeigarren urtez egingo dute sagardo txapelketa, ohi bezala, Gure Izarra elkartearen.

Sailkapenerako hiru saio

Sailkapen-egunei emango diete hasiera gaurko saioarekin, baina beste bi ere izango dituzte: irailaren 4an, gaur zortzi, bata, eta irailaren 11n, bestea. Irailaren 18an izango da final handia, aurreneko sei sailkatuen artean.

20 sagardoan artean, onena

Aurten hogei sagardok hartuko dute parte: Akarregi eta Itxas-buru, Hernanitik; Izeta,

Aurten, 20 sagardok hartuko dute parte, eta horietatik sei pasako dira irailaren 18ko finalera.

Aiatik; Sarasola, Asteasutik; Oiharte, Zeraindik; Zabala eta Aburuza, Adunatik; Astiazaran eta Kalonge, Donostiatik; Urdaira, Aginagatik; Rezola, Petrategi, Larrarte, Alorrenea eta Lizeaga, Astigarragatik; Ordozelai, Oiarzungatik; Eguzkitza, Tolosatik; Urruzola eta Eula, Urnietatik; eta Goikoe-txea, Lizartzatik.

Horiek guztiak kopan dastatuko dituzte epaimahaikideek. ||

HERNANI ERRUGBIA

Hernani vs. Getxo, larunbatean

Larunbatean jokatu du Hernanik, Euro Basque Rugby Challengeeko 3. jardunaldia

ARRATSALDEKO 16:45etan hasiko da partidua, Fadurako zelaian. Euro Basque Rugby Challengeeko 3. jardunaldia izango da larunbatekoa, hain zuzen.

Hernaniko gazteek, irailaren 15ean ekingo diote 2019-2020 denboraldiari, Sevillako

Ciencias taldearen aurka jokatuz, Sevillan bertan. Hori dela eta, ederki etorriko zaie Polidoriren mutilei, larunbat honetako partidua.

Getxo aurkari dutela, denboraldi berrirako prestatzeko, pare gabeko beroketa izango da, larunbatekoa. ||

†

MARÍA JOAQUINA
IZAGIRRE AIZEGOITIA

"MARI"
(Pedro Grijalbaren alarguna)
Atzo hil zen, 84 urte zituela

- Goian Bego -

Seme-alabak: Pedro Mari (+), Juan Miguel (+) eta Begoña, José Luis eta Matxus, Iñigo eta Mamen, Imanol; bilobak: Nerea, Joana, Gorka, Erika eta Javi, Maddi eta Ane; birbiloba: Aingeru; ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideek.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizute eta arren etor zaitezela **GAUR, ASTEAZKENA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, SAN JOAN BATAIATZAILAREN** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2019ko abuztuaren 28an

OHARRA: Gorputza Hernaniko ORBEGOZO EHORKETA TANATORIOAN egongo da eguerdiko 12:30ak arte.

IRAGARKI MERKEAK

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura, ... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)